

BIGARREN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

- **Idatzizko azterketak bi proba ditu:** irakurmen-proba eta idazmen-proba.
- **2h 5 min.** dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

Proben ezaugarriak	Aurreikusitako denbora	Puntuazioa (gehienez)	Puntuazioa (gutxienez)
<p>IRAKURMEN-PROBA</p> <p>Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dituzu. Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Oker erantzuteagatik ez da punturik kenduko. Testuen luzera guztira: 1.500 hitz gehienez.</p>	50 min.	20	10
<p>IDAZMEN-PROBA</p> <p>Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin eta eskatutako hitz-kopurua bete. Eskatutako hitz-kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</p>	75 min.	30	15

- Azterketa-koaderno hau ez da jasoko, zuretzat da.
- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egin bertan jartzen duena.
- **Ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan** egin.

2. HE

IRAKURMENA

■ 1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.
Aukeratu erantzuna a), b) ala c) den. Bakarra da zuzena.

LONDRESKO EZKONTZA

Apirilaren 29an Londresko ezkontza ikusi nuen, ezteiak asko gustatzen zaizkidalako, eta batez ere emaztegaien soinekoak. Badakit gai friboloa dela eta askok gaizki begiratuko didatela. Jakin ere badakit Ingalaterrakoa errege-ezkontza izan zela eta ni errepublikanoa izanda, ez dela koherentea.

Gainera, ezkontza erlijiosoa izan zen eta, beraz, agnostiko batek kritikatu egin beharko luke. Bestalde, ezkontza horretan emakumearen mendekotasuna agerian utzi zuten hainbat sinbolok (beloa aurpegian, eraztun bakarra...). Eta feminista izanda, errefusatu egin beharko nuke. Horrez gain, hainbeste diru gastatzea ezkontza batean, eta bertan aberatsak baizik ez azaltzea ezkertiar batek mespretxatu egin beharko luke.

Hala ere, asko disfrutatu nuen: nolako antzezlanak, nolako antzokia! Baliteke umetatik eskaini dizkiguten ereduak buruan sartuta izatea. Ez dakit gustu horiek nondik jaso ditudan, baina halakoekin ondo pasatzen dut.

Baliteke pamela, kapela eta burukoengatik izatea, eta emaztegaiaren soinekoaren oihal eta brodatuengatik eta soineko luze eta *baporosoengatik* ere bai. Ez dakit, baina estetikoki ederrak iruditzen zaizkit.

Tira, nire asmoa ez da Kate Middleton-en soinekoaz, edo gonbidatutako emakumeen arropaz hitz egitea. Nire ustez, gehiegi hitz egiten da horri buruz, kritikatzeko eta gaizki esaka jarduteko. Ez, gizonezkoen janzkeraz mintzatu nahi dut: uniformeak eta jakak, lan txikia niretzat!

Horrelako ezteietan ez dakit nondik datorren uniformeak janzteko mania. Badakit emakume askori ikaragarri gustatzen zaizkiela uniformeaz jantzitako gizonezkoak. Edo behintzat, hori diote telebistan eta filmetan. Inguruan inori ez diot horrelakorik entzun. Niri suhiltzaileak ere ez zaizkit horrela gustatzen!

Senargaiak eta bere aitabitxiak uniformeak zeramaten. Williamek uniforme gorri-gorria, banda urdin bat bularrean gurutzatuta ezkerreko sorbaldatik, eskuineko mokorreraino, zatar-zatarra: Beukelarreko printzea zirudien! Gainera, uniformeak handi zeukan, oso handi. Nola liteke neurrira ez egitea? Imajinatzen duzue emakume batek soinekoa hain lasai eramango balu nolakoak entzun beharko lituzkeen? Horrez gain, bularraldean zeraman txatar guztia? Ikaragarria! Itsusi mortala!

Eta txatarraz hitz egiten badugu, Harry anaiaz... Ezin aipatu gabe utzi! Txatarraz gain, borla eta soka doratuak metroka zeramatzan uniforme beltzaren jakaren bueltan. Gonbidatu guztiek sokasaltoan egiteko beste. Ikaragarria!

Eta amaitzeko uniforme gabeko gizonezkoen janzkera aipatu nahi nuke. Zer tristea, gatz gabekoa eta aspergarria! Grisa eta beltza, eta ausart batzuek kolore apaleko gorbataren bat. Badakit protokoloak agintzen duela, eta jaka dela derrigorrezko. Baina inoiz aldatuko al da ezer esaten ez duen janzteko modu inuzente hori?

NARBAIZA, L. Sustatu. 2011ko maiatza. Egokitua.

2. HE

IRAKURMENA

■ 1. ariketa. Erantzun-orria

1. Testuan agertzen denaren arabera:

- a) Idazlea fribolo samarra eta monarkia zalea da.
- b) Oro har, idazleak gustuko ditu gai friboloak.
- c) Idazleak badaki ez dela koherentea.

2. Idazleak dioenez:

- a) Londresko ezkontza erlijiosoa izan zelako da kritikagarria .
- b) Londresko ezkontzan aberatsak izan ziren gonbidatu bakarrak.
- c) Londresko ezkontzan emakumearen sinboloak errefusatu zituzten feministek.

3. Idazleak:

- a) Argi dauka zenbait eredu buruan sartuta dituela.
- b) Izugarri gozaten du horrelako espektakuluekin.
- c) Txikitatik jaso du antzezlanak ikusteko zaletasuna.

4. Idazlearen iritziz:

- a) Kate Middleton-en soinekoa ez zen kritikatzekoa.
- b) Gizonezkoen arropak sinpleak dira.
- c) Emakumezkoen janzkera gehiegi kritikutzen da.

5. Irakurgaiak dioenez:

- a) Idazlearen inguruko emakumeek ez dute esaten uniformeak gustatzen zaizkienik.
- b) Emakume guztiak txoratu egiten dira uniformeak ikustean.
- c) Horrelako ezkontzetan uniformeak janzteko mania aspaldikoa da.

6. Senargaiaren uniformeak:

- a) Serioegia zen, idazlearen iritziz.
- b) Idazlearen iritziz, ez zegoen neurrira eginda.
- c) Koloretsuegia zen, idazlearen arabera.

7. Idazlearen arabera, Harryren uniformeak:

- a) Apaingarriz betea zegoen.
- b) Ez zen anaiarena bezain deigarria.
- c) Gonbidatu guztiak harrিতта uzteko modukoa zen.

8. Uniforme gabeko gizonen jantziak:

- a) Oso tristeak izan ziren.
- b) Gorbata biziren bat kenduta, ausartak izan ziren.
- c) Elegante samarrak izan ziren.

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN

2. HE

IRAKURMENA

■ **2. ariketa**

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu **testu zatia** dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu-zatirik egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

IBAIA BERRERAIKITZEN

“Ontzientzako moduko zabortegia” deitzen zioten bilbotarrek Ibaizabal ibaiari orain hamarkada batzuk. Ibaizabalen ertzetako industriak behera egin eta ibaia berreskuratzeko ekintzei esker, bestelakoa da egun egoera. Itzultzen ari dira desagertu ziren arrain asko, eta gardentzen doa uren etorkizuna. Gero eta aisialdirako aukera gehiago eskaintzen du, gainera. **1**

80ko hamarkadan hasi zen aldaketa. Orduan jarri zuen martxan Bizkaiko Ur Partzuergoak ur zikinak kontrolatzeko sarea. **2** Egun, plana «bukatutzat» ematen dutela dio Ramon Cortinak. Bizkaiko Ur Partzuergoko ur zikinen saileko Obra eta Proiektuko zuzendariordea da bera.

Azken urteetan aldaketa handia sumatu da. Garai batean inolako tratamendurik gabe isurtzen zen ura ibaira. Gero, Galindoko araztegia oinarrizko tratamendua ematen hasi zen. Baina 2000 urte inguruan egin zen urratsik nabarmenena. **3**

Ibaia, baina, ez da ibaia soilik; ibaia eta haren ingurua baizik. Hor ere izan da aldaketarik. Lehen ezinezkoa zen, baina orain oso atsegina da ibai ertzean paseoa ibiltzea. **4** Orain, aldatzen ari da hori, eta jendea ibaira hurbiltzen ari da.

Ur Partzuergoaren lana da horren oinarria. **5** Lotuta daude, ordea, bi ekintzak. «Ibaizabal erakargarri bilakatzen doan heinean, erakargarri bihurtzen ari dira haren inguruak».

Gero eta ohikoagoak dira aisialdi-jarduerak ere. 2008an hasi ziren Bilbobentura enpresako kideak lanean. Ibilaldiak eskaintzen dituzte piraguan, ibaia ibaitik bertatik ezagutu ahal izateko. **6** «Batuetan, eguraldi ona egiten duenean, garden-garden egoten da ura».

Oxigenoa izan da denbora luzez Ibaizabalen arazoa. **7** Urte luzez inolako tratamendurik gabe isurtzen ziren hondakin industrialak, baita hiriko hondakinak ere. **8** Handia zen kutsadura, eta oso urria zen fauna. Ibaia biziberritzeko planak sortu ahala, hoberantz egin zuen egoerak. Egun, % 60 ingurukoa da Bilbo Handiko uren oxigenazio maila; estandarra.

Arnasarik gabe egon da Ibaizabal denbora luzez, baina azken hamarkadetako lanari esker, badirudi arnasberritu egin dela. **9**

ASTIZ, I. Berria, 2011ko maiatza. Egokitua.

2. HE

IRAKURMENA

■ **2. ariketa. Erantzun-orria**

- A. Azti-Tecnaliakoek diotenez, oxigeno falta, zehazki.
- B. Cortinak aitortzen duenez, ibaiaren urak dira haien lan-esparrua, eta ez ibaiaren inguruak.
- C. Bitartean inor ez da hondakinen gaiaz eta uraren kalitateaz arduratu.
- D. Orduan hasi ziren tratamendu biologikoa ematen, eta horrek irauli egin zuen egoera.
- E. Eta hala agertu dira berriz ere lupiak, ostrak eta bestelako animaliak ere.
- F. Orain gutxi, adibidez, piraguako lehiaketa bat eta Bilboko Triatloia jokatu dira bertan.
- G. Jarduera horien arduradunak dioenez, garden ikustea da ibaiaren hobekuntza.
- H. Zuzenean ibaira zihoazen urak araztegiara bideratzen hasi ziren garai hartan.
- I. 70eko hamarkadan «ezin txarragoa» zen uraren kalitatea, oso oxigeno maila txikikoa eta bakterio-kontzentrazio handikoa.
- J. Herritarrak Ibaizabali bizkarra emanaz bizi ziren lehen, estolda moduko bat zelako.

Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	1	2	3	4	5	6	7	8	9
Testu zatiak									

Sobera:

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN

2. HE

IRAKURMENA

■ **3. ariketa**

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.
 Aukeratu erantzuna a), b) ala c) den. Bakarra da zuzena.

BIZIKLETAZKO MEZUAK

Gasteiz hiri egokia da bizikletaz ibiltzeko. Eremu laua eta lasaia da, eta hedaduraz ere egokia da batetik bestera mugitzeko, baita lanerako ere. Azaroan bizikletari lehen pedalkadak ematen hasi zirenetik, Enbizi mezularitza-zerbitzua geratu gabe ari da lanean Gasteizko kaleetan zehar. Hiritarren beharrei modu merke eta ekologiko batean erantzun nahian, bizikleta garraiotzat duen mezularitza-negozioa ireki zuten 26 urteko bi gasteiztarrek. Duela aste batzuetatik, berriz, Errementari kaleko 70. zenbakian zabaldu dute bulego berria. Gasteizko Alde Zaharra biziberritzen ari da pixkanaka, ate berriak irekitzen ari direla esan daiteke.

Oier Iñigo ingeniari-zerbitzulari lanetan aritu izan da oraindano. Gustavo Seoane, berriz, enpresa batean aritzen zen, 26 urterekin kale gorrian geratu zen arte. «Lanik gabeko egunetan etxeko eta lagunei errekaduak egiten hasi ginen, Enbizi mezularitza-negozio propioa zabaltzea otu zitzaigun arte», adierazi du Oier Iñigok.

San Frantzisko eta New Yorkera egindako bidaietan ikusitakoaren arabera, eta Iruñeko zerbitzuen gertuko adibidea kontuan hartuta, «Gasteizen ere horrelako negozio batek funtziona zezakeela iruditu zitzaigun. Buru belarri aritu gara, nahia errealitate bihurtu arte», Iñigok adierazi bezala. Hirian zehar mugitzeko bizkar-zorro egokia soinean hartu eta eskutitzak, paketeak, piezak, eta bizikletan garraia daitekeen material guztia eramaten dute eskatutako tokiraino. «Bestelako hasiera espero genuen, apalagoa, baina lanik ez dugu falta, eta egunetik egunera gehiago daukagu. Batez ere enpresetatik deitzen digute, horiek dira gure bezero nagusiak», azaldu du Iñigok.

Bizikleta garraio-bide egokiena da hiri barruan batetik bestera mugitzeko. «Enbizi mezularitzak egiten duen lana erabat ekologikoa da, eta hiritarren bizitzetan ere ez du zarata eta kutsaduraren inguruko eragin kaltegarrikerik eragiten gainerako garraio-bideen gisan». Gainera, bizikletaz mugitzea modurik azkarrena da Gasteiz zeharkatzeko, bizikletaren gainean eguneko 80 eskaerari erantzuteko gaitasuna dute Enbizi mezularitza zerbitzuko kideek.

Garraio-bide azkar eta garbiarekin lan egiteaz gain, zerbitzu merkea eskaintzen da Enbizin. Ibilbide desberdinetan banatuta dute hiria, eta egin beharreko bidearen eta presaren arabera prezioa ezartzen zaio zerbitzu bakoitzari. Enpresako arduradunetako batek adierazitakoaren arabera, hiru ordu baino lehen eskutitz bat Gasteizko alde batetik bestera garraiatzea bost euroren bueltan kostatzen da batz bestea; esan liteke beste edozein mezularitza-enpresak baino merkeago eta azkarrago egiten dugula lan.

Aurrera begira, norbanakoarengana gehiago gerturatzea izango da mezularien erronketako bat, «enpresez gain, hiritar guztiek aprobetxa dezaten Enbizi mezularitza zerbitzua».

ALTUNA, A. *Berria*, 2011ko martxoaren 10. Egokitua.

2. HE

IRAKURMENA

■ 3. ariketa. Erantzun-orria

- 1. Zer asmorekin zabaldu zuten mezularitza-zerbitzu berria?**
 - a) Gasteiztarren premiak asetzea, prezio onean eta ingurumena begiratuta.
 - b) Hain maite zuten bizikletaren afizioa ofizio bihurtzea.
 - c) Bizikleta jartzea hiria erdigunean.
- 2. Zer gertatzen ari da Gasteizko Alde Zaharrea?**
 - a) Biziberritzeko Planaren eraginez bizitza bueltatzen ari da auzora.
 - b) Negozio berriak ari dira zabaltzen itxita zeuden lokaletan.
 - c) Enbizikoek Errementari kalean beste bulego bat zabaltzeko asmoa dute.
- 3. Nola hasi zen mamitzen enpresa honen proiektua?**
 - a) Arduradunetako bat antzeko lanak egiten hasi zenean aurreko enpresan.
 - b) Langabezian egonik, diru-laguntza bat lortu zutenean enpresa sortzeko.
 - c) Langabezian zeudela, ikusi zutenean enkarguak egitea negozioa izan zitekeela.
- 4. Zer ikusi ondoren animatu ziren enpresa sortzera?**
 - a) Hirian mugitzeko ezer gutxi behar dela soinean, bizkar-zorroa ez bada.
 - b) Estatu Batuetako hiri handi batzuetako eta Iruñeko ereduak.
 - c) Bizikletaren bidez herritarrek behar dituzten gauza asko garraia daitezkeela.
- 5. Nolako harrera izan du negozioak?**
 - a) Norbanakoek eskatzen dituzte enpresaren zerbitzuak.
 - b) Hasierako gorakadaren ondoren, orain egonkortu egin dira eskaerak.
 - c) Ez zuten uste hainbeste lanik egingo zutenik hastapenetan.
- 6. Enbiziko kideen hitzetan, zer abantaila nabarmena daukate beste mezularitza-enpresa batzuen aldean?**
 - a) Isiltasuna, kutsadurarik ez eragitea.
 - b) Gertutasuna, bezeroarengandik oso hurbil daudelako.
 - c) Azkartasuna, Alde Zaharreko enkarguetan.
- 7. Nolakoak dira Enbiziren prezioak?**
 - a) Beste mezularitza-enpresa batzuen antzekoak.
 - b) Lehiakideenak baino altuagoak, garraibide azkar eta garbia delako.
 - c) Egin beharreko ibilbidearen eta premiaren arabekoak.
- 8. Zer erronka daukate etorkizunera begira?**
 - a) Inguruko auzoetan beste ordezkari batzuk zabaltzea.
 - b) Pertsona partikular gehiago bezero izatea.
 - c) Gero eta enpresa gehiagok kontratatzea zerbitzuak.

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN

2. HE

IDAZMENA

Oharrak:

- Ondoren, bi ariketa dituzu. **Biak egin behar dira.**
- Oso kontuan hartu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Idatzi garbi eta saiatu letra argia egiten.
- Idazteko, erabili boligrafoa.
- Zuzentzean hauexek hartuko dira kontuan:
 - eskatutako guztiari erantzun diozun,
 - ideiak garbi adierazi dituzun,
 - euskara nola erabili duzun: egoki, zuzen edota aberats.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU
EGIN ARIKETAK, HORRETRAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN**

2. HE

IDAZMENA

■ 1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta idatzi **gutuna**.
Idatzi 125 hitz, gutxienez.

GAIA:

Zure auzoko kiroldegian eliteko kirolariak entrenatzen dira. Hori dela eta, arratsaldeetan gainerako herritarrek ezin dute kiroldegia erabili.

Idatzi gutuna Kirol Patronatuko arduradunei zure kexa eta arrazoiak adierazteko eta konponbideren bat proposatzeko.

■ 2. ariketa

Gai honi buruzko **iritzia** eman nahi duzu eta horretarako Dendarien Elkarteko aldizkarian idaztea erabaki duzu.

Idatzi 125 hitz, gutxienez.

GAIA:

Herriko denda baten jabea zara. Egunkarian irakurri duzu denda duzun kalea oinezkoentzako kale bihurtuko dutela. Horrelako aldaketek beste herri batzuetan izan duten eragina ezagutzen duzu eta alde on eta txarrak ikusten dituzu.

Lanak hasi baino lehen, Dendarien Elkarteko aldizkarian zure iritzia ematea erabaki duzu.

Zirriborroetarako lekua (orri hau ez da zuzenduko)

Zirriborroetarako lekua (orri hau ez da zuzenduko)

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

2. HE / IRAKURMENA ERANTZUN ZUZENAK

- 1. ariketa: Aukera anitzeko galderak
- Irakurgaia: «Londresko ezkontza»

1.	C	5.	A
2.	B	6.	B
3.	B	7.	A
4.	C	8.	A

- 2. ariketa: Sartu testu zatia dagokion hutsunean.
- Irakurgaia: «Ibaia berreraikitzen»

Hutsuneak	1	2	3	4	5	6	7	8	9
Testu-zatiak	F	H	D	J	B	G	A	I	E

Sobera: C

- 3. ariketa: Aukera anitzeko galderak
- Irakurgaia: «Bizikletazko mezuak»

1.	A	5.	C
2.	B	6.	A
3.	C	7.	C
4.	B	8.	B